

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4952

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 10ekoa, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiarena, 2025-2026 aldirako Kanpo Harremanen arloan gazteak prestatzeko bekak esleitzekoa.

Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 14. artikuluari eta Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2025eko ekainaren 18ko Ebazpenari jarraikiz, hamalau bekaren deialdia egin zen (sei Europako gaien modalitatean, lau kanpoan den euskal komunitatearen modalitatean eta lau kanpo-harremanen modalitatean), gazteen prestakuntza sustatzeko kanpo-harremanen arloan.

Beken hiru modalitateak instruitzeko organoek behin betiko ebazpen-proposamenak bideratu dizkiete, aipatutako dekretuaren 13. artikuluari jarraikiz.

Hori guztia ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ez onartzea I. eranskinean ageri diren pertsonen aurkeztutako eskabideak, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.— Atzera egindakotzat ematea II. eranskinean adierazitako eskabideak, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.— Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak esleitzea (Europako gaien modalitatean, kanpoan den euskal komunitatearen modalitatean eta kanpo-harremanen modalitatean), III. eranskinean zehazten diren pertsonen eta lekuetan (ordezkoen zerrenda ere bai).

Laugarrena.— Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak ukatzea IV. eranskinean zehazten diren pertsonen, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bosgarrena.— Europako gaien modalitateko hiru beka hutsik uztea, hautagairik ez dagoelako.

Seigarrena.— Kanpoan den euskal komunitatearen modalitateko lau beka hutsik uztea, hautagaiak ez dutelako lortu eskatutako gutxieneko puntuazioa.

Zazpigarrena.— Kanpo-harremanen modalitateko lau beka hutsik uztea, hautagaiak ez dutelako lortu eskatutako gutxieneko puntuazioa.

Zortzigarrena.— Beken hasiera-data 2025eko abenduaren 19a izango da.

Bederatzigarrena.— Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 10a.

Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusia,
ANDER CABALLERO BARTUREN.

I. ERANSKINA

ONARTU EZ DIREN ESKABIDEAK

Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 12.1.c artikuluko baldintza ez betetzeagatik:

Kanpo-harremanak:

Abizenak	Izena	NANa
Gómez Sierra	Marta	XXX9795XX

II. ERANSKINA

ATZERA EGIN DUTEN ESKATZAILEEN ESKABIDEAK

Hautaketa-prozesuan atzera egiteagatik:

Europako gaiak:

Abizenak	Izena	NANa
Amann Arévalo	Rafael	XXX9563XX
Arenas Aizpuru	Ibon	XXX6805XX
Barrera Mollinuevo	Ainhua	XXX5165XX
Basterretxea López	Mikel	XXX4883XX
Eguia Vázquez	Andere	XXX1942XX
Lertxundi Vaquero	María	XXX3669XX
Rodríguez Navarro	Amaya	XXX7844XX

Kanpoko euskal komunitatea:

Abizenak	Izena	NANa
Amilibia López	Oinatz	XXX3460XX
Herrán Sedano	Naia	XXX0288XX
Labaka Goikoetxea	Ainhua	XXX2628XX
Pallé Gómez	Laura	XXX0653XX

III. ERANSKINA

ONURADUNEN ZERREDA

1) Europako gaiak:

a) Vitoria-Gasteiz, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia:

Abizenak	Izena	NANa
Martínez Arbulu	Julen	XXX5222XX
Totorikaguena Murgialdai	Eñaut	XXX4818XX

b) Brusela, Euskadiren Europar Batasunerako ordezkaritza:

Abizenak	Izena	NANa
González Pérez	Maitane	XXX7872XX

IV. ERANSKINA

BEKA UKATU ZAIEN PERTSONAK

a) Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 13. artikuluan adierazitako gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik:

Europako gaiak:

Abizenak	Izena	NANa
Cordero García	Aitor	XXX7710XX

Kanpoko euskal komunitatea:

Abizenak	Izena	NANa
Azpiazu Larrañaga	Kristiñe	XXX6013XX
Ocariz Moreno	Leire	XXX9486XX
Rousse Bengoa	Unai	XXX4360XX

Kanpo-harremanak:

Abizenak	Izena	NANa
Akarregi Cantero	Izaro	XXX9005XX
Urionabarrenetxea Núñez	Gorka	XXX0641XX